Berria-Berri & Berria-Berri &

BACHENABARRE ZIBEROA

DONIBANE-GARAZI

GAZTEN CHOKOA

Johan da johan, oldar iderrean, berri huntan eta gaztekin ! Nundik ez ?

Igande bakotch biltzen da ehunez goiti gazte, auzo herrietarik. Gazte batzu, zoin beren tokian, erresponsable dire hantaz edo hartaz. Eta hola denak untsa johan dire... orai artio segurik.

Beharba josteta gehichago behar litake. Alainan Donibandarrak, lekian izanki eta, bertzeak baino lehen han...

Gazte ezkonduek ere nahi lukete hor, arats batzuez, elgarretaratu. Zertako ez ?

3 eta 4 garren eskoletako haurrak, nundik nahikoak izan diten, juaiten ahalko didire barne hortarat, ortzegun aratsaldetan.

Eta etchetako neskatoak ? Hauek ere, hilabetean bi aldiz, egiten ahalko dute, egon aldi bat ona, elgarren artean.. nahiz batzu han dire ere bertzekin igande aratsaldetan.

Haatik kasu ! Hemendik harat, karta bat beharko da, egia erran prezio aphalekoa, hor sartzeko...

Urririkako gauzak ez ote dute estimu guti... ?

« MUS » ak BADIRA

Jaz bezala aurten ere jokatuko gire zoin gehiagoka, Ez dugu ahantzia jazko chapeldunak Garaztarrak zirela, Lakartarrak.

Frangok izenak emanak dituzte ; jazkoek... bichtan da, salda ona kausiturik ; berri batzuek ere. Dudan direnak mugi ditela... tenore deno ! Ondoko egunetan ze katzakadak... ze tiroak eta zer irrizaflak... Matin !

SORTZE

Ez jazko nonbrerat heldutik ere izanen dugu aurten multcho pullita : 30 bat.

Alaba bat sortu da Diribarne, marechalaren etchean ; seme bat Saparart familian, muttiko bat ere, seigarrena, Cabrol jaun notariaren familian.

Gure goresmenak aitamer eta osagarri on mundurat jin haur berrieri !

OURDIGNARBE

Marro arrotz bat bada Ilharegunian. Mandoua. Buru beltza. Lau hortzekoua, souimburian tinta horia, eskerreko beharian gibeletik ozke haundi bat. Horen jabia adreza dadila : M. Loustau, Ilharegua à Ordiarp.

SUHUSKUNE

HERIOTZE

Herioa asko usu ahiatia dugu herrian. Aurthen selgarren aldikotz egin dauku ageraldi bat eta ereman dauzku oralno ustez hemengo ziren zonbait.

Joanden astian itzali zauku Bertrand Etchepareborde guk denek "Pettan Saparart" deitzen ginduena. Uste gabian. Gosturik hoberenian artho xuritzen ari zen, bere lagun eta auzoekin. Lehenoko modan, ixtorio kondan eta irriz. Hain laket zizaion auzoen konpañian, josteta, arraillerian.

Etzen nehor enoatzen funtsian haren ingurian. Bethi elhe pollita eta goxoa. Artetan xixtako zombait goxo goxoa, ez sekulan min egiteko, bainan irri egiteko. Hori zen haren plazera. Eta hala hala hil da. Auzoen eta aurriden arteán, helen eskuetan, irriño batekin, izitu gabe, kexatu gabe, goxoki.

Pettan joan zauku funts hortan. 69 urthe zituen. Nehork etzuen uste adin hori bazila. Iduri baltzin bethi gazte, bethi omore onian.

Pettan denek maite zuten. Hain zen zerbitzu egilia. Egiazki gizona, osoki leiala. Zuhurki, ixil, ixila, espantu handirik gabe, eman duzke zonbait kontseilu on bazterretan. Nik dakitala segurik ba ! Eta zonbait zerbitzu ! Bazin jenden konfiantza. Gizona zelakotz.

Joanden ostegunian Suhuskundarrak han zin elizan haren gorputzaren aitzinian, pentsaketa eta othoitzian. Auzo herrietarik ere ikusi ditut gizonsk ; zor baitzioten ainitzek.

Meza demboran jaun errerorrak, erran du xinple xinplia, nor izana zen Pettan. Esperantza utzi dauku bihotzetan.

Pettan ! ikus ártio ! Hor egonen da zure gorputza bil herri horietan, eliza eta meria sahetsian.

Herritarrek erraiten dautzute : milesker eta ikus arte.

ADIXKIDEA.

MEHAINE

DOLU IKARAGARRIRA

Kattalin Ubaldeberrikoa denek ezagutzen zuten ama eta amatchi ohoragarri bat zen. Astelehen goizian oto batek jo du bidean mezarat zoatarik argia gabe. Kaska horri ez du ihardoki eta ichil-ichila zendu da. Mehaindar guziek bihotz min haundia dugu.

Ez dugu guk otozaina jujatzen ahal, bertze oto batek kurutzatzean aras itsutua zen alainan.

Familiak ontsa ikus dezala gure dolunün biziena.

P. E.

N'attendez plus !...
COMMANDEZ
dès aujourd'hui
vos CARTES DE VISITE
à l'Imprimerie des Cordeliers
14, rue des Cordeliers
BAYONNE —— Tél. 25.15.96

Hil dira :

Garindagnen :

Carrère, ardoukariaren laguna, 89 ourthe. Tchilintchauzka iuzachko egon da, hanitch sofritu gabe.

" Cours " katedrale-ko khantarien gida hiltiar zen.

Garindagnen sorthu zen.

Bignabe-ko prima eginik izan argia eman seme bati eta 2 alhabari.

Egun oroz kasik :

1) Jinkos errezebitzen zian ;

2) Khounderak unguratzen.

Hor bezutian bi atout, Erregue - Erreguignak, batzari ederraren ardiesteko beste gangtian.

Maulen :

Labarrère mothikoa, 32 ourthe, Paris-e jo ziana eta hounek tokatu.

Aits Maulen arotz da.

— Behéty alharguntsa, 87 ourthe.

Mendikotan :

Soumet jaun errejentaren aita eta meriako idazlia.

" Ogeu - les - Bains " zen ehortzeta.

EZKOUNTZE

Algarrekin bizitzeko hitzien dira, Maulen :

Alfred Lefort, eskoletan dena, argie ikhousirik Jolimet Nordeko herrian ; Daniella Prieur Mauleko eskoletan denarekin.

Pour le mieux, adichkidiak erran gabe doa.

ARGITZE

Zuzenak jakin behar dutie :

1) zaharrek ;

2) eta " assurés sociales " delako dohatsiek.

Abentu hamarrian, 8 orenetarik 12-etara badukie merian arguizale jakintsu gocho bat.

MERKHATIA

Eguiten die :

Behi :
Haitiek : 190-210 milla.
Artekoek : 100-150 milla.
Chahalek :
Ederrek : 60 milla.
Artekoek : 50 milla.
Borthakoek :
Kiloa 310-320 libera.
Halaber cherriek.
Artzarrek :
8 milla - 10 milla.
Ardi ernariak :
11 milla 14 artano.
Achouriek :
500-550 libera kiloak.

VIGNETTE

Sos direnez behar da lothi ez perrekeer.

Beribil dunak aberats dirlako famaekilan dutugu.

Ourthe orozko legartto b badie, hots " vignette "-ko salbu :

1) **Pension militaire d'i validité** 16 edo 37 artikulia althe badutie ;

2) balinbadie 80 % pher sione ;

eta kartan ezaririk bada " station **debout pénible** " ;

3) 100 % phentsioneer bi dira :

tuberculeux direlakotz et " **luzaz** " arthaturik izan be har.

LIP *Station-Service*
Rue Jules-Labat
Gde Poste - BAYONNE
COLLECTION COMPLÈTE DE MONTRES 1966
J. MARTINEZ horloger diplômé E.N.H. de Cluses
BIJOUTERIE - ORFÈVRERIE CHRISTOFLE, etc...
TOUS CADEAUX DE FIN D'ANNÉE
TOUTES RÉPARATIONS

PILOTAZ

MIARRITZEKO PARTIDAK

Jendea arras pulliki bildu da igandean Miarritzeko Plaza-Berrin, mugaz bi aldetako amaturren artean muntatu partiden karietarat.

Esku-huska, mugaz bertzaldean ibiltzen dituzten pilotekin, hangoak nausitu frango atse.

Madrid eta Naldá-k garhailu atabainan Elissalde eta Minondo hunaindikoak, 25 eta 9.

Gurek badute bixtan da trebatzearen beharra bainan ariz sartzen da ofizioa eta bide onean dira. Elissalde bereziki biziki ontu da eta hola segituz laster on izanen da bertzaldeko edozoinen aintzinean agertzeko. Minondo mail bat beherago da oraino bainan itzuren arabera eginen du bide hunek ere.

Paletekin, Bareits bi aneiek bentzutu dituzte Llorca eta Alza bertzaldekoak, 35 eta 22.

Auzi samurra. Zortzi adoste, azkena 15-na. Handik goiti, Pier Bareits agertu hoberena.

Hirugarren partida « cestupunta » delakoan jokatu du mugaren bi aldetako gazte-gazte batzuen artean (14 urtekoak).

Manzanos eta Zarantena huindikoek irabazi Dubut eta Paillou gurenkontra, 35 eta 23.

Hiru garhaituldi horien kitoalak eginen dira igande huntan zortzi Logroñon.

AMOTZEN

Desafioka, Behengaray eta Etchemendy-k garhaitu Zugasti eta Etchart, 50 eta 41.

Gudukatatakatua, burutik buru. Jozka, bi eskualdeak elgarren betze.

Behengaray-ek gain poxi bat hartu botatik.

Mundu bat bildu da partida huntarat. Kitoala igande huntan eta toki berean.

AZKAINEN

Ramuntcho trinkeetean. Irazoqui eta Frantxua Sein nausitu Arbillaga eta Borda-ri. 50 eta 48 !

Galtzaleak aintzinean ziren 44 eta 28 ! Uste zuten ordukotz auzia segurtatua. Bainan Arbillaga-ri eskuko mina jauzi zaio... eta bertzeak laster ohartu. 47-ra adostea ardietsi eta partida ereman...

NEGREZEKO TRINKETEAN

Arbillaga eta Borda-k garhaitu Larzabal eta Harambillet semea, 50 eta 21.

Lehenbiziko 15 kintzeak xarmanki atakatuak izan dira.

Gero, Harambillet gazteak amor eman, esku eskuina arrunt minberaturik...

ARRAYA.

LIBURU BERRI

Liburu gora-mailetakoa dauku atera Txillardegi jaunak, « Huntaz eta Hartaz » izteerekin.

Bai bietan egia da, nolakoa gizona, halakoa izaiten dela lana.

Txillardegiren gogoaren alalekuak dira, bere liburuko amar zatietan : Eskual-politika, erlijionea, zikologia.

Liburu hau irakurtuz geroz, ezin ukatua da, eskuaraz, edozoin burudan : filosofia, musika, idazkintza eta beste, frantsesez edo espainolez bezain ongi trata ditazkela.

Txillardegiren izkuntza da zainarta, zorrotza, nasaia. Berak baliatu hitzekin ; hitztegi ttipi bat egin ditake. Ez da Txillardegi, izkuntza garbitzaletarik, ez eta zikintzaletarik. Den hitza, baliatzen du... Ez dena aldiz, edo eskual erro zonbaitetarik moldatzen, edo suetseko mintzairatik hartuz gureztatzen. Gu ere, holaxe ari gira.

Txillardegiren jakintza da zabalonetarik. Ez ditu bakarrik lehenagoko idatzleak ezagutzen, bainan ere arras gaurkoak. Ez bakarrik Europakoak, bainan Xinatarrak, Indianoak Rusoak eta beste... Berdin trebe da mintzatzeko pinturaz, politikaz, erlijioneaz, musikaz, nik dakita zertaz.

Bizkitartean, Txillardegi ez da Ianoetan galdua dabilan filosofo bat. Hurua estekatua dauka lepoari. Bere gogoa josia dauka biziari, hainbesteraino nun ez baita erreu ikustea eun obretarik dituen muntatzen gogoetak ala hautarik obrak.

Mamiz, liburua duzu oraikoja, bizia, zimendutsua.

Liburu hori da sofrikario eta kezka askoren fruitua. Txillardegik adimendua kezkan dauka, gizon askok eta bereziki Eskualdunek, jasaiten dituzten zuzengabetasunez kezkan ; Elizako buruzagien bertute eskasiaz kezkan, eriotzeko pulunpak norat geramatzan griñatua.

Txilladegik, Etxabun dauku orroitarazten. Bien olhua da berdin barnetikakoa. Batena, biotzkorrago, berekoiago, atx egiten baitu berari gertatuaren gatik. Bestearena adimendutsuago eta orokorrago, filosofoa baita eta beraz zabalkundetan alatzailea.

Holako liburu guti edo bihirik ez da agertu, orai artio, eskual idazkintzan.

Bere sailan, Txillardegi dugu oraiko Eskualdun idatzlarietan lehen mailekoa. Bere lana pareka ditake edozoin gisa bereko lan aipatuekin. Ez dut erran bearrik, horren prezutzeko, bear dela izan hein batean eskolatua, ba gogoetan, bai'ta ere eskual izkuntzaren ibilleretan.

Liburu hori eros ditake Baionan (Editions Goiztiri, 14, rue des Cordeliers).

P. LARZABAL.

Decoration d'Eglises
J. ETCHEBERRY — 44, rue Victor-Hugo, 44 — BAYONNE — Tél. 25.11.10
PEINTURE — ECHAFAUDAGES SPÉCIAUX
Diplômé de l'Ecole des Beaux-Arts

Concessionnaire spécialiste
MACHINES A LAVER
VEDETTE
RÉFRIGÉRATEURS
VEDETTE
CUISINIÈRES
SCHOLTES
G. LALLIER
21, RUE POISSONNERIE, BAYONNE Tél. 25.14.26
Service après vente assuré.
— Facilités paiement. —

ARMENDARITZE

BERRITZE ETA BERRI

Lucoste Salieseko langile aiphatuek ezarri daukute Elizako dorrea osoki aphaindurik estali berriez. Adio ithacburak eta ufa dezatela haize hegoek, ez dakote gehiago minik eginen delako dorreari. Dembora berean ezarri daukute dorrearen puntan ortziaren kontrako ortaiza.

Bertzalde alha dugu erloia berri bat Bodet elektrikaz dabilana. Anjelus ere berak emaiten. Zer lo gochoak orai zeintu joilearentzat.

SORTZE

Aste bat barne bi sortze :

Marie-Thérèse 4 garren haurra Pochultuan eta nechka bat ere Bidainian 4 garren haurra.

Ongi ethorri horier et ohore ait'ameri.

HITZ ON BAT
Ez uros Mubleriik Ikustera joan gabe
Maison PARAGE
BAYONNE
6 et 8 rue Marengo

AMODIO AUHENA

AIRKA : *Kaiolan nintzenian maiz nindagon triste*

Haundizki kolpatua, bihotzean dut min :
Penetan jarria naiz, ukanik atsegin ;
Maite bat bihotzean sartu zaitan behin ;
Tronpaturik utzi nau segida batekin.

Adin ederrenean, hemeretzi urte,
Munduko penetan dut artu behar parte :
Urus ta alegera nintzen orai arte ;
Uste nuen betikotz ninduela maite !

Besta igande batez inik ezagutza,
Elgarrekin ginuen biek egin dantza ;
Ondoko egun batez in ere agintza,
Sekulakotz ginela biak elgarrentza.

Igande aratsalde, bardin aratsetan,
Ene gana maitia eldu zen frangotan ;
Ez oraino aspaldi, burasoen bistan,
Ezkonduko ginela itzemana zautan.

Ondotik jarraiki zaut bi urte pasturik ;
Ardura erran ere « nik ez dut bertzerik » ;
Munduan ezin baitu izan angerurik,
Hola enganatu nau, saretan arturik.

Abilki jakin zuen ni nola engana ;
Uste nuen zuela amodio fina ;
Negurri gabea zen ene zoriona,
Ustez atcheman nuen betiko laguna.

Bihotzez otoizten du zeruko Jaun ona
Otoi eman dezadan eni osasuna,
Ohorezkki hazteko jin beharra dena ;
Aitarik ez izanez maita dezan ama.

Pena guzien gatik maite dut oraino ;
Nik ez dut ahantziren, ez, bizi naizeno ;
Munduan nehok ez du nehor egundaino
Maite ahal izatu oi nik hori baino !

Ez ginela eginak elgarrekilako,
Bakotcha gure alde gâ mizi beharko :
Munduko bizia da hale posatuko ;
Hil ondoan Jainkoak gaitu jujatuko.

Denak hilen garela ez baita dudarik,
Mundura jinez geroz ez da eskapurik,
Zeruan bali bada hautatzen maiterik,
Han'e ez dut izanen nik zutaz bertzerik.

Biak sartzen bagine hil-eta zeruan,
Ene penak ukabo litezke orduan ;
Jainkoak segura daut, urrikalmenduan,
Leku bat hautatuko zure inguruan.

Nai bada ardietsi hil-eta zerua,
Hemen pairatu behar egin bekatua :
Nik nerea lagnoki daukat aitortua,
Berritz ez erortzeko chedetan sartua.

Neskatcheri kontseilu, nitaz oroit-eta :
Mutil solas ederrak ez subra eskuta ;
Zuen buruak bethi ongi errespeta ;
Ondoko urrikia, berantegi baita !

Azkeneko pertsuan, maitea, adio !
Zure bihotz gogorrak oi zer ote dio ?
Ene huni betikotz zauria dario,
Haundizki kolpatua zu zaila medio !

PANPILLI.

GAZTEEN OIHARZUNAK

Beti emestu izan dut « Gazteen oiharzunak » deitu xoko huntan Eskualdun gazteriak bere gora beheren berri emaitea. Nik ere, Eskualdun gazteriako bainiz, emaiten ditut ene berri zonbait. Beharba irakurle andana baten atseginetan izanen dira.

Irrintzin bat Algeriatik, erraiten dut ;ezen Eskualdun multxo bat bada Algerian. Elgarretarik frango urrun gira, bainan luza gabe — Egueriz beharba — Alger hirian elgar kausitzeko esperantxan.

ZER ARI GIREN HEMEN.

Denek ez dakite beharba, bigarren maileko ikasteak eginak dituzten gaztek, soldadogoaren kondu urte bat edo geiago egiten ahal dutela edo Marokan edo Algerian edo Afrika beltzeko erresuma batzuetan eskolemaile bezala. Hautua izanez geroz, hemen girenek naiago izan dugu eskuin edo esker eskolemaiterat joan. Kaserna batean zizari pikatzen egoiteko orde, hemen iraganen dugun denbora baliatuko da hemengo gaztetan eskolatu nai duteneri. Eta hain segur guhauri ere.

Orai, bi hilabete hautan hemen gira Algerian. Marseillan airekoa hartzean ehun bat gazte baginen hunarateko. Nik eskola egiten dut Constantine-ko ikastetxe batean. Urrundik iduri luke Uztaritzeko apezgaitegia. Bainan hemen ez dituzte murruak xuriz eta leioak gorriz tindatzen.

Ikastetxe hortan 320 ikasle, zazpi urtetarik hemeretzi urtetarainokoak. Horietan hogoi bat Europano bakarrik, bertze guziak direlarik hemengotarrak odolez eta mintzairaz. Ikaste guziak frantsesez egiten dira, haatik mail bakotxean, aste guziz lau oren araba egiten dituzte guziek, Eskual-Herriko eskoletan frantsesarekin batean eskuara erakusten balitz bezala.

Eskolatik kanpo, ez da entzuten ikasle bakar bat bera frantsesez mintzatzen. Denak arabaz. Funtsean Constantine hiriko karriketan berdin da. Hemengo gazteria arabari !

IRRINTZIN BAT ALGERIATIK

Hemen aipatzen dutan ikastetxean 24 erakasle bagira. Horietan 2 apez, 4 apezgai, bertze guziak direlarik beren ofizioz errint edo errintsak. Soldadogoaren kondu hemen erakasle girenek hilabetean 80 mile libera xahar hunkitzen dugu. Bertzek, bixtan dena, gehiago zuzen den bezala. Paga hortarik egin behar gure bizia. Hemen bizia naski Frantzian baino karioago da. Hasteko beztitzekoak segurik dudarik batere gabe bai.

ENOATZEN GIRENETZ HEMEN...

Ez dakit zer dioten hortez, ni bezala hemen diren Eskualdun edo frantses gaztek, bainan nik orai arte segurik ez dut dolurik hunarat jitea hauteturik.

Bixtan da Frantziako kaserna batean soldado ez nuela denbora arras dena galduko, bainan hemen izaiteak ere badu bere balioa, apezgai batentzat ere. Ez dezaket oino erran zoin pundutan xuxen, bainan uste dut zerbait ikasiko dutala, hemengo jendeen bihotzari behar bezala so egiten ikasten badut.

Hemen, ez dira erlisione girixtinoko apezak arras hor gaindikoen moldean lanean ari. Algerianoek beren erlisionea baitute (eta, ez pundu guzitan makurra) bortxatuak dira helekin kurutzatzeko edo medikuntza edo eskolemailegoan edo injeniurgoan artzea. Hemen hola da.

Igande edo larunbat arrats batzuez goatzi zonbait aldiz hiriko teatro edo zinema batetarat. Joanden egunean kausitu dut hemengo ikastetxe batean den Donibane Lohitzundar errintsa bat. Rusiano kantari eta dantzari multxo xoragarri bati beha ginelarik, gogoan gintuen Euskadiko eskual dantzari eta kantari mulxoak. Eta ez ginen guti fier horiek aipatzean. « Rusian baiinbaditutze dantzari eta kantari onak, ez gira gu ere Eskualdunak deus gabe... »

ALGERIANOAK NOLAKOAK DIREN...

Ez da baitezpadako Algeria guzian ibiltzea, ikusteko nolakoak diren Algerianoak. Egun guziz andana bat badut eskolan, karrikarat ateratzen naizelarik kurutzatzen tropaka. Zonbaitekin ere huntaz edo hartaz solas egiten dut.

Ez dut sekulan santan onartuko lehenago eskolako liburu batzutan eta geroxago hor gaindi, hemengo gerla egin duten batzuek errana : « Algerianoak zikinak... basak... alferrak.. » eta holako elhe poilitak.

Hobeki da erraitea hemen ere kausi ditakela, nun nahi bezala, orotarik. Iduritzen zaut Algerianoek badutela edozoin populuek bezanbat bertute. Algeria behera egon da jaun pollit batzuek hala atxiki dutelakotz. Algerianoak atzarri dira eta oldartu beren zuzenen eskuratzeko. Algerianoen katixima ere zen : « Gureak gure eta denekin eskuz esku. »

Eta zinez hala da orai. Algerianoak dira Algeriaren politikaren kudeatzaileak eta hemengo lendakariak aski garbi errana du Algeriak badakiela zer egin.

Horrek ez du erran nahi kanpo herrietako laguntza onak eta erakaspenek ez dituela onartzen. Froga bat ? Gobernuak onartzen ditu erlisione mota guziak. Mahometano, girixtinoa, protestantena eta bertze.

Hemengo erakasle edo teknikalarietan badira Algerianoetaz bertzalde bixtan dena, Frantsesak, Españolak, Eskualdunak (Ain Teya-ko hirian badira Donostia eta Bilbao-ko bi eskualdun familia kartsu), Polonesak, Lybanesak, Rusianoak, Belgikanoak, Suisanoak eta bertze...

Horra ene berri zonbait. Ni ere zuek bezala nintzan hunarat etorri aintzin : Nun da Algeria ? Zer dira Mahometanoak ? Zertako 7 urte gerla ? Zertan da Eliza Katolikoa Algerian ? eta holako...

Orai, hobeki ihardesten ahal dut galde horieri. Beraz aski aldi huntako. Nork ere balu zerbait galdegiteko hemengo bizian, xoko huntan berean mintza dadila.

Kapable baniz ihardesteko, eginen dut holako aldi batez. Gazte lagunak eta ezagunak, ez adiorik. Hor gora... nahi duzuena. Hemen Gora Algeria.

Gazteak beti elgarren laguntzaile, argitzaile eta sustatzaile.

Manex PAGOLA.

Sécurité Sociale eta Sécurité Sociale agricole direlakoak ardatzdus